



# Euskal I+G+b-ren estrategia Europan

(2021-2030)



Hitzaurrea	3. or.
1. Hasierako egoera	5. or.
1.1 Sarrera	5. or.
1.2 Analisiaren ondorio nagusiak	6. or.
1.3 AMIA	7. or.
2. Ikuspegia, ildo estrategikoak eta helburuak	9. or.
2.1 Ikuspegia	10. or.
2.2 Ildo estrategikoak	11. or.
2.3 Helburuak	12. or.
3. Aginte-koadroa	14. or.
4. Hasierako neurriak	16. or.
5. Estrategia monitorizatzea eta ebaluatzea	17. or.
I. eranskina. Hasierako egoeraren analisi zabala	23. or.
II. eranskina. Glosarioa	48. or.

Europako Batzordeak I+G-ri Laguntzeko Europako I. Esparru Programa abian jarri zuenetik, Euskadik umotasuna eta eskarmentua eskuratu ditu ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak garatzeko orduan nazioarteko lankidetzan aritzeari dagokionez. Horizonte 2020 Esparru Programaren emaitzek agerian uzten dute aurrerapauso handia eman dela ildo horretan. Proposamen bikainak aurkeztu dira —proposamenen arrakasta-tasak Europako batez bestekotik gorakoak dira—; eragile zientifiko-teknologikoek posizionamendu ona lortu dute Europako ekimen publiko-pribatuetan; gure enpresen parte-hartzea eta enpresek eskuratu duten finantzaketa areagotu egin dira; horren guzti horren ondorioz, gainditu egin dira hasieran ezarritako helburuak, eta, gainera, aipatutako guztiak ikerketa bat burutzen lagundu du, eta ikerketa horrek Euskadiko Espezializazio Adimenduneko Estrategia indartzeko aukera eman du.

I+G+b arloko esparru-programa berri bat sortzear dela, eta 2030erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planari erantzunez, zeinak bere helburuen artean ezartzen baitu «Euskal I+G+b-ren nazioartekotzea sustatzea», premiazkoa da I+G+b nazioartekotzeko estrategia berri bat diseinatzea 2021-2030 aldirako.

Estrategia hori lagungarria izango da 2030erako ikuspegi partekatu are anbiziotsuagoa lortzeko. Estrategiaren helburua da Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren (ZTBES) potentziala baliatzea eta handitzea, ezagutza berriak sortzea eta erakartzea eta gaitasun berriak garatzea sustatuz, gure enpresa-sarearen egungo zein etorkizuneko lehiakortasuna eta gure ikerketaren bikaintasuna bermatzeko.

Euskal I+G+b Europan nazioartekotzeko 2021-2030 aldirako estrategiaren helburua da Europa gero eta lehiakorrago honetan Euskadik duen posizionamendua hobetzea, eta abiapuntu on hori oinarritzat hartuta, aurrea hartzeko eta etorkizuneko aukerak baliatzeko (edo sortzeko) bidea emango diguten jarduerak definitzea.

Era berean, I+G+b-ri laguntzeko programen osagarritasuna indartu beharko da, EAEko I+G+b arloko programen eta Europako ekimenen arteko sinergiak sustatzeko neurriak diseinatzuz, azken horiek eskaintzen dituzten finantzaketa-aukerak ahalik eta ondoen baliatzeko eta, modu horretan, I+G+b-ren balio-katea osatzeko.

Estrategia honen irismen berria aintzat hartuta, aginte-koadro bat diseinatu beharra dago, zeinean 2030erako lortu beharreko helburuen jomugak zehaztuko baitira, bai eta ZTBESk Europako Ikerketa Esparruan duen jokaerari erantzun osoagoa eta errealagoa emango dioten adierazleak ere. Besteak beste aliantzekin, posizionamenduekin edo sinergiekin lotutako adierazleak txertatzea funtsezkoa izango da ZTBESk Europan eta nazioartean duen posizionamenduaren bilakaera aztertu ahal izateko.

I+G+b nazioartekotzeko estrategiak arrakasta izateak aukera emango du Europan espazio, ikusgaitasun eta aintzatespen handiagoak lortzeko, bai eta estrategia horren sorkuntzan parte hartzeko eta ahotsa izateko ere. Hau da, asko lagunduko du «Basque Country Estrategia»n.

Europako I+G+b Proiektuetan Euskal Parte Hartzea Aztertzekeo Behatokian bildutako datuei esker, I+G+b-ri Laguntzeko 2014-2019 aldirako Europako Esparru Programan (Horizonte 2020) Euskadik lortutako emaitza nagusiak aztertu ahal izan ditugu. Nolanahi ere, Europako beste programa batzuetako datuak ere bildu ditugu (I. eranskina).

ZTBESko zenbait eragileri egindako elkarrizketen bidez —jardunean daude eta H2020 programaren barruko Europako zenbait ekimenetan parte hartu dute—, osatu egin zen diagnostikoa, eta ondoren, I+G+b nazioartekotzeko estrategia prestatzean sortutako aditu-taldearekin kontrastatu zen.

Jarraian, lan horren emaitzak azalduko ditugu: lehenik eta behin, ondorio nagusiak, eta, bigarrenik, Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren ahuleziak, indarrak, mehatxuak eta aukerak I+G+b nazioartekotzeko bidean aurrera egiteari begira. 2021-2030 aldirako ikuspegia, erronkak, ildo estrategikoak eta helburuak ezarriko ditugu, eta horiek lortzeko indartuko edo aplikatuko diren tresnak eta neurriak zein diren zehaztuko dugu.

Era berean, estrategia monitorizatzeko eta ebaluatzeko sistema zehaztuko dugu, aldian-aldian strategiaren ezarpena aztertzekeo eta lortutako emaitzak erkatzekeo, eta, hala badagokio, behar diren neurri zuzentzaileak eta egokitzapen-neurriak ezartzeko.

- Fabrikazio aurreratuaren arloan Europako eskualde lider gisa posizionatzea lortu du Euskadik.
- Euskadiren arrakasta-tasa (% 18) H2020 programako batez bestekoa (% 12) baino handiagoa da oraindik ere.
- Nazioarteko lankidetzaren proiektuen % 23ren lider da Euskadi.
- Euskadik Horizonte 2020 programaren bidez lortutako finantzaketa % 52 handitu da VII. Esparru Programaren bidez lortutakoarekin alderatuta, eta 719 milioi eurora iritsi da, hau da, H2020 programaren funts guztien % 1,3ra.
- Nazioarteko lankidetzan arituta sortutako euskal argitalpen zientifikoaren kopurua % 16,7 hazi da.
- European Research Council programaren bidez oinarritzko ikerketa garatzeko Euskadik lortu duen finantzaketa % 92 handitu da VII. Esparru Programaren bidez lortutakoarekin alderatuta.
- H2020n parte hartzen ari diren enpresa berrien kopurua handitu egin da; nolana ere, euskal enpresen parte-hartzea txikia da I+G-n diharduten enpresen kopuruarekin alderatuta.
- H2020ko parteneriatu publiko-pribatuen % 78k gutxienez euskal eragile zientifiko-teknologiko bat dute beren gobernu-organoetan.
- Euskal eragileak, nagusiki, Alemania, Italia, Frantzia, Erresuma Batua eta Belgikarekin aritu dira lankidetzan H2020 programaren barruan.

# 1. Hasierako egoera

## 1.3 AMIA

AHULEZIAK	INDARRAK
1. a. Enpresa txikiak dira nagusi. Horiek baliabide ekonomiko mugatuak dituzte, eta ez daukate European parte hartzeko langile kualifikatu nahikorik.	1. i. Fabrikazio aurreratuaren arloan Europako eskualde lider gisa posizionatuta dago Euskadi.
2. a. ETEen parte-hartze maila txikia da, zenbait faktore direla-eta: ez dituztelako ezagutzen Europako ikerketa-agendak, parte hartzea oso zaila delako eta burokrazia handiegia delako.	2. i. Eragile teknologiko batzuen posizionamendua kontsolidatuta dago, eta enpresa handiek lehen baino ikusgaitasun handiagoa dute Europako ekimenetan (ezagutza-sareak eta erabakiak hartzeko foroak).
3. a. Enpresek ez dute H2020 Esparru Programa aukera-iturri gisa ikusten.	3. i. Badira erakunde publiko, kluster eta enpresa-elkarte batzuk I+G nazioartekotzeak dakartzan onuren inguruan sentibilizatuta daudenak.
4. a. Zientziaren eta Teknologiaren Euskal Sareko eragileen eta enpresen arteko lankidetzari handiagoa izan liteke.	4. i. ZTBESko zenbait eragilek —batik bat, zentro teknologikoen— umotasuna eta eskarmentua dituzte Europako proiektuetako parte-hartzeari dagokionez.
5. a. Enpresek zailtasunak izaten dituzte zein ikerketa-zentroekin lankidetzan aritu behar duten identifikatzeko, eta ondorioz, klusterren laguntza handiagoa behar izaten dute.	5. i. Fabrikazio aurreratuaren eta energiaren arloetan, ekosistema zabala dago Euskadin (oinarri teknologikoa + oinarri industrialak).
6. a. Osasun-arloan, ekosistema mugatua dago (oinarri teknologikoa badago baina ez dago oinarri industrial nahikorik).	6. i. ZTBESk baditu zenbait zentro teknologiko, eta zentro horiek enpresek Europako deialdietan parte hartzea bultzatzen dute.
7. a. Enpresek (ETEEK) ez dute umotasun nahikorik ikertzaileen prestakuntzari eta mugikortasunari dagokienez.	7. i. Badira enpresa berri batzuk sentibilizatuta daudenak eta I+G+b nazioartekotzea aukera gisa ulertzen dutenak.
8. a. I+G nazioartekotzeari laguntzeko tresnak ez daude egokituta (ERA-NET eskema, zehazki) eta Europako programen eta eskualdeko programen arteko osagarritasun txikia dago.	8. i. Eragile zientifiko-teknikoen umotasuna dute ikertzaileen prestakuntzari eta mugikortasunari dagokienez.
9. a. Europako deialdietan finantzaketa eskasa bideratzen da ikerketa-zentroetara (ez ditu zeharkako kostuak estaltzen).	9. i. Aholkularitza espezializatua jasotzeko aukera dago (aholkulariek Europako proiektuetan eskarmentua dute).
10. a. Ez dago Europako proiektuetan lidergoa sustatzeko pizgarririk.	10. i. Agente zientifikoek oinarritzko ikerketa garatzeko eskuratutako finantzaketaren emaitzak onak dira.
11. a. Euskal esparru teknologikoen ez du irudi bateraturik European.	11. i. Bada Enterprise Europe Network izeneko euskal nodo bat, zeinak laguntza eta aholkularitza eskaintzen baitie enpresei (ETEEK) beren nazioartekotze-prozesuan.
12. a. Enpresek ez dakite zein zerbitzu eskaintzen dituen Enterprise Europe Network euskal nodoak.	12. i. Talentu ikertzailea Euskadin atxikitzeko edo Euskadira erakartzeko gaitasuna.

# 1. Hasierako egoera

## 1.3 AMIA

MEHATXUAK	AUKERAK
1. m. I+G+b arloko Europako laguntzak eskuratzeko beste herrialde batzuekiko lehia gero eta handiagoa da, eta, ondorioz, estrategia eta lankidetzaren bidezko ikerketa finantzatzeko gaitasuna murriztu egin da.	1. a. I+G+b-ri Laguntzeko Europako Esparru Programak, Horizonte Europak, programaren barruan umotasun teknologikorik handiena duten ekintzen babesa indartzearen alde egitea, eta, beraz, euskal enpresak Europarekin lerrokatuago egotea (European Innovation Councilekin, esaterako).
2. m. Ziurgabetasun handia dago epe ertaineko eta luzeko bilakaera ekonomikoari dagokionez, eta, horrez gain, I+G arloko epe laburreko inbertsio pribatua mugatu egin da. Hori dela eta, baliteke I+G arloko Europako programetako parte-hartzeak behera egitea.	2. a. ZTBESko eragileek posizionamendu ona izatea Horizonte Europaren parteneriariatu berrietan (ezagutza-sareak eta erabakiak hartzeko foroak)
3. m. Enpresa-esparruko tituluak dituzten gazteen talentua erakartzeko edo hari eusteko zailtasunak daude.	3. a. Beste eremu batzuetan dagoen umotasuna eta ezagutza aprobetxatzea, enpresek eta ikerketa-zentroek osasun-proiektuetan parte har dezaten indartzeko.
4. m. Nazioarteko lankidetzaren bidezko Europako proiektuak aldatu egin dira, eta aurrekontu handikoak eta Europan lider diren enpresa handien parte-hartzea duten partzuergoak nagusitu dira.	4. a. Balio-kateko ikuspegiak sustatzen dituzten Europako deialdiak aprobetxatzea sistemako elementu guztiak bultzatzeko (Green Deal, trantsizio digitala).
5. m. BREXITaren ondorioz, bazkide britainiarren parte-hartzea murrizteko arrisku handia dago, Erresuma Batuarekin akordioa egin bada ere.	5. a. COVID-19ak I+G arloan inbertitzeko beharraz sentsibilizatzea ekarri du, batez ere esparru jakin batzuetan, hala nola osasunean eta I+G industrialaren sustapenean. I+G arlora bideratutako nazioarteko finantzaketa handitzea ekar lezake horrek. 6. a. Horizonte Europaz gain, badira beste programa batzuk ere (LIFE, Erasmus +, Europa Digitala eta Invest Europe). 7. a. MSCA programa aldatzea, enpresen parte-hartzea handitzeko.
	8. a. Kateko finantzaketa-eskemaren bidez kudeatutako deialdiak areagotzea.
	9. a. FET-Flagship delakoak baliatzea ikerketa-esparru esanguratsuak bultzatzeko, eta esparru horiek nazioartean konektatzeko.



### ZTBP 2030

***Ikuspegia:**  
2030ean, berrikuntzan aurreratuen dauden Europako eskualdeetako bat izango da Euskadi, eta bizi-maila handia eta kalitatezko enplegua izango ditu.*

I. oinarria: Bikaintasuna

II. oinarria: Teknologia- eta industria-lidergoa

III. oinarria: Berrikuntza irekia

Muina: Talentua

Helburu  
operatiboak

1. Emaitzarako orientazioa
2. Berrikuntza garatzea
3. Nazioartekotzea
4. Talentua sustatzea

**Euskal I+G+b-ren estrategia** European 2030erako ZTBPrez helburu estrategikoetako bat betetzea du helburu: «Euskal I+G+b-ren nazioartekotzea bultzatzea».

Estrategia horrek aipatutako helburua betetzen lagunduko du, zuzenean, baita planaren gainerako helburu operatiboak ere, zeharka.

**Euskal I+G+b-ren  
estrategia European**

#### IKUSPEGIA

2030ean, Euskadik **I+G+b sistema bikaina** izango du, eta horrek berrikuntzan aurreratuen dauden Europako eskualdeen artean kokatzen lagunduko digu.

#### ERRONKAK

1. **Bikaintasun-ratioak** handitzea **gure lehentasunekin** zerikusia duten nazioarteko I+G+b arloko proiektuetan.

2. Euskadik, I+G+b arloari dagokienez, Europan eta nazioartean dituen **aintzatespena eta posizionamendua** hobetzea.

3. **I+G+b sistema gisa** haztea nazioartean, indarrak aprobetxatuz.

## 2. Ikuspegia, ildo estrategikoak eta helburuak

### 2.2 Ildo estrategikoak

#### ERRONKAK

1. Bikaintasun-ratioak handitzea (arrakasta-, lidergo- eta finantzaketa-ratioak) gure lehentasunekin zerikusia duten nazioarteko I+G+b arloko proiektuetan.

2. Euskadik, I+G+b arloari dagokienez, Europan eta nazioartean dituen aintzatespena eta posizionamendua hobetzea.

3. I+G+b sistema gisa haztea nazioartean.

1. i. 2030erako ZTBPre lehentasunezko eremuetan proposamen bikainak egiten laguntzea.

2. i. Europako proiektuetako lidergoa sustatzea (lan-paketeetako koordinazioa eta lidergoa).

3. i. Enpresa txiki eta ertainei I+b-rako EEPn(\*) parte hartzen laguntzeko ekintzak areagotzea. Horretarako, proposamenak egiten eskarmentu handia duten ikerketa-eragileen eta enpresa sustatzaileen bultzada ETEen alde baliatuko da.

4. i. ZTBESko euskal eragileek erabaki-organoetan eta ezagutza-sareetan parte har dezaten sustatzea, eragiteko eginkizuna betez; ildo horretan, nabarmentzekoak dira I+b-rako EEPren (\*) partenariatuak.

5. i. 2030erako ZTBPre lehentasunezko eremuei lotutako I+G+b arloan erreferentziakoak diren herrialdeekiko eta eragileekiko lankidetzaren alde jardutea, modu proaktiboan.

6. i. EAeko eta Europako I+G+b arloko programen arteko sinergiak sustatzea.

#### ERRONKAK

1. Bikaintasun-ratioak handitzea (arrakasta-, lidergo- eta finantzaketa-ratioak) gure lehentasunekin zerikusia duten nazioarteko I+G+b arloko proiektuetan.

2. Euskadik, I+G+b arloari dagokienez, Europan eta nazioartean dituen aintzatespena eta posizionamendua hobetzea.

3. I+G+b sistema gisa haztea nazioartean.

1. Europako proiektuetan lortutako arrakasta-tasa hobetzea.

2. Nazioarteko lankidetzaproiektuetako lidergoa bultzatzea, lanpaketeetako lidergoa areagotuz.

3. Europako proiektuetan parte hartzen duten euskal enpresen kopurua handitzea.

4. Europak I+G+b-ri laguntzeko emandako finantzaketa publikoa handitzea.

5. Erabakiak hartzeko Europako I+G+b arloko foroetan eta ezagutzasareetan Euskadik duen posizionamendua indartzea.

6. I+G+b-n aitzindari diren eskualdeekiko eta herrialdeekiko lankidetzareagotzea.

7. Mundu osoko ikertzaile bikainak erakarri, berreskuratu eta kontsolidatzea.

8. ZTBESko eragileen eta enpresen arteko lankidetzahanditzea.

9. Nazioarteko eragile bikainekin lankidetzan arituta burututako proiektuen kopurua areagotzea.

10. I+G+b arloko proiektuei jarraitutasuna ematea, EAEko eta Europako programen arteko sinergien bidez.

## 2. Ikuspegi, ildo estrategikoak eta helburuak

ERRONKAK	1. Bikaintasun-ratioak handitzea (arrakasta-, lidergo- eta finantzaketa-ratioak) gure lehentasunekin zerikusia duten nazioarteko I+G+b arloko proiektuetan.				2. Euskadik, I+G+b arloari dagokienez, Europan eta nazioartean dituen aintzatespena eta posizionamendua hobetzea.			3. I+G+b sistema gisa haztea nazioartean.		
HELBURUAK	1. Europako proiektuetan lortutako arrakastatasa hobetzea.	2. Nazioarteko lankidetzaproiektuetako lidergoa bultzatzea, lan-paketeetako lidergoa areagotuz.	3. Europako proiektuetan parte hartzen ari diren euskal enpresen kopurua handitzea.	4. Europak I+G+b-ri laguntzeko emandako finantzaketa publikoa handitzea.	5. Erabakiak hartzeko Europako I+G+b arloko foroetan eta ezagutzasareetan Euskadik duen posizionamendua indartzea.	6. I+G+b arloan aitzindari diren eskualdeekiko eta herrialdeekiko lankidetzareagotzea.	7. Mundu osoko ikertzaile bikainak erakarri, berreskuratu eta kontsolidatzea.	8. ZTBESko eragileen eta enpresen arteko lankidetzahanditzea.	9. Nazioarteko eragile bikainekin lankidetzan arituta burututako proiektuen kopurua areagotzea.	10. I+G+b arloko proiektuei jarraitutasuna ematea, EAEko eta Europako programen arteko sinergien bidez.
ILDO ESTRATEGIKOAK										
1. i. 2030erako ZTBPre lehentasunezko eremuetan proposamen bikainak egiten laguntzea.	X			X			X			
2. i. Europako proiektuetako lidergoa sustatzea (lan-paketeetako koordinazioa eta lidergoa).		X	X	X			X	X		
3. i. Enpresa txiki eta ertainei I+b-rako EEPn (*) parte hartzen laguntzeko ekintzak areagotzea. Horretarako, proposamenak egiten eskarmentu handia duten ikerketa-eragileen eta enpresa sustatzaileen bultzada ETEen alde baliatuko da.			X	X						
4. i. ZTBESko euskal eragileek erabaki-organoetan eta ezagutza-sareetan parte hartzen sustatzea, eragiteko eginkizuna betetz; ildo horretan, nabarmentzekoak dira I+b-rako EEPren parteneriatuak.		X		X	X				X	
5. i. 2030erako ZTBPre lehentasunezko eremuei lotutako I+G+b arloan erreferentziakoak diren herrialdeekiko eta eragileekiko lankidetzaren alde jardutea, modu proaktiboan.						X			X	
6. i. EAEko eta Europako I+G+b arloko programen arteko sinergiak sustatzea.			X	X					X	X

### 3. Aginte-koadroa

Erronkak	Helburuak	Adierazleak	Gaur egungo egoera (2019)	Jomuga 2023	Jomuga 2026	Jomuga 2030
<b>1. Bikaintasun-ratioak hobetzea gure lehentasunekin zerikusia duten nazioarteko I+G+b arloko proiektuetan.</b>	1. h. Europako proiektuetan lortutako arrakasta-tasa hobetzea.	1. Arrakasta-tasa, ehunekotan.	% 18 (2014-2019)	% 18	% 19	% 20
		2. ERCK emandako zenbat laguntza eskuratu diren.	30 (2007-2019) (*)	42	51	63
	2. h. Nazioarteko lankidetzaren proiektuetako lidergoa bultzatzea, lan-paketeetako lidergoa areagotuz.	3. I+b-rako EEPren barruan, lider aritutako proiektuen kopurua, ehunekotan.	% 23 (2014-2019)	% 20	% 20	% 20
		4. I+b-rako EEPren barruan, lan-paketeetako lider aritutako proiektuen kopurua, ehunekotan.	Daturik ez	% 60	% 65	% 70
	3. h. Europako proiektuetan parte hartzen ari diren euskal enpresen kopurua handitzea.	5. I+b-rako EEPn sartuta dauden euskal enpresen kopurua.	77	100	110	120
		6. Batera programatutako eta instituzionalizatutako I+b-rako EEPren parteneriatuen deialdien bidez finantzatu diren I+G+b arloko proiektuetan parte hartzen ari diren euskal enpresen kopurua.	31	40	44	48
		7. I+b-rako EEPn parte hartzen ari diren euskal ETEen kopurua.	48	60	70	80
	4. h. Europak I+G+b-ri laguntzeko emandako finantzaketa publikoa handitzea.	8. I+G-rako nazioarteko finantzaketa.	128 M €	1.100 M €	1.100 M €	1.100 M €
		9. Europako finantzaketa publikoa, ehunekotan.	% 1,3 (2014-2019)	% 1,3	% 1,4	% 1,5
<b>2. Euskadik, I+G+b arloari dagokien, Europan eta nazioartean dituen aintzatespena eta posizionamendua hobetzea.</b>	5. h. Erabakiak hartzeko Europako I+G+b arloko foroetan eta ezagutza-sareetan Euskadik duen posizionamendua indartzea.	10. Batera programatutako eta instituzionalizatutako I+b-rako EEPren parteneriatuen gobernu-organoetan diharduten euskal eragileen kopurua.	41	44	45	46
		11. Aldebiko (edo alde anitzeko) akordioen kopurua.	7	10	10	10
	7. h. Mundu osoko ikertzaile bikainak erakarri, berreskuratu eta kontsolidatzea.	12. Ikerbasqueko ikertzaileen kopurua.	268(*)	350	400	450
<b>3. I+G+b sistema gisa haztea nazioartean.</b>	8. h. ZTBESko eragileen eta enpresen arteko lankidetzaren handitzea.	13. ZTBESko eragileen eta euskal enpresen arteko lankidetzaren proiektuak, ehunekotan.	% 33	% 35	% 38	% 40
		14. I+G+b arloan erreferentziakoak diren Europako eskualdeekiko eta herrialdeekiko lankidetzaren burututako I+G+b arloko proiektuen artean, ZTBPren(**) lehentasunezko eremuekin zerikusia duten proiektuen kopurua, ehunekotan (**).	% 91	% 93	% 95	% 97
	9. h. Nazioarteko eragile bikainekin lankidetzaren arituta burututako proiektuen kopurua areagotzea.	15. Nazioarteko lankidetzaren arituta sortutako argitalpen zientifikoaren kopurua, milioi biztanleko.	1.650	1.920	2.220	2.560
		16. ZTBPren lehentasunezko eremuei lotuta dauden eta, horrez gain, Europako programetan jarraipena duten I+G+b arloko proiektuen kopurua, ehunekotan.	Daturik ez	% 5	% 8	% 10
10. h. I+G+b arloko proiektuei jarraitutasuna ematea, EAEko eta Europako programen arteko sinergien bidez.						

(\*) Iturria: Ikerbasque.

(\*\*) 14. adierazlea zehazteko, RIS3 Euskadiko lehentasun bakoitzeko erreferentziako zer herrialde eta eskualde identifikatu diren aintzat hartu behar da.

OHARRA: aginte-koadroko adierazleerako zehaztutako jomugak metagarriak dira, 3., 5., 8. eta 15. adierazleetan aipatutakoak iza n ezik, horiek 2030erako ZTBtik datozen jomuga partzialak dira-eta.

### 3. Aginte-koadroa

Adierazleak	Definizioa
1. Arrakasta-tasa, ehunekotan.	Aurkeztutako proposamen guztietatik, I+b-rako EEPren bidez finantzatutako I+G+b arloko proiektuen kopurua, ehunekotan.
2. ERCK emandako zenbat laguntza eskuratu diren.	ERCK emandako zenbat laguntza garatu diren Euskadin (balio absolutua).
3. I+b-rako EEPren barruan, lider aritutako proiektuen kopurua, ehunekotan.	Euskal parte-hartzea duten proiektu guztietatik, Horizonte Europa Esparru Programaren edo ondorengo beste programa batzuen barruan Euskadi lider aritu den I+G+b arloko proiektuen kopurua, ehunekotan (I+b-rako EEPren barruko RIA eta IA delako nazioarteko lankidetzeta-proiektuak soilik).
4. I+b-rako EEPren barruan, lan-paketeetako lider aritutako proiektuen kopurua, ehunekotan.	Nazioarteko lankidetzan burututako euskal proiektu guztietatik, lan-pakete batean (koordinazioan eta komunikazioan izan ezik) euskal eragile bat lider aritutako I+G+b arloko proiektuen kopurua, ehunekotan (I+b-rako EEPren barruko RIA eta IA delako nazioarteko lankidetzeta-proiektuak soilik).
5. I+b-rako EEPn sartuta dauden euskal enpresen kopurua.	Horizonte Europa Esparru Programan edo ondorengo beste programa batzuetan parte hartu duten euskal enpresen kopurua. Kopuru hori zehazteko, enpresa-arloko eragile guztiak hartzen dira kontuan (enpresa-elkarteak, I+G unitateak, enpresa handiak eta ETEak).
6. I+b-rako EEPren barruan batera programatutako eta instituzionalizatutako ekimenek egindako deialdien bidez finantzatu diren I+G+b arloko proiektuetan parte hartzen ari diren euskal enpresen kopurua.	I+b-rako EEPren barruan batera programatutako eta instituzionalizatutako ekimenek egindako deialdietan parte hartu duten euskal enpresen kopurua (enpresa-arloko eragile guztiak aintzat hartuta: enpresa-elkarteak, I+G unitateak, enpresa handiak eta ETEak).
7. I+b-rako EEPn parte hartzen ari diren euskal ETEen kopurua.	I+b-rako EEPn parte hartzen ari diren euskal ETEen kopurua.
8. I+G-rako nazioarteko finantzaketa.	Euskadin garatutako I+G-ren nazioarteko finantzaketa.
9. Europako finantzaketa publikoa, ehunekotan.	I+b-rako EEPren finantzaketa osotik, Euskadik lortu duen zatia, ehunekotan.
10. Batera programatutako eta instituzionalizatutako I+b-rako EEPren partenariatuen gobernu-organoetan diharduten euskal eragileen kopurua.	I+b-rako EEPn parte hartzen ari diren euskal eragile guztietatik, batera programatutako eta instituzionalizatutako I+b-rako EEPren partenariatuen gobernu-organoetan diharduten euskal eragileen kopurua.
11. Aldebiko (edo alde anitzeko) akordioen kopurua.	ZTBPreh lehentasunezko eremuei lotutako I+G+b arloan erreferentziakoak diren herrialdeen eta eragileen eta Euskadiren arteko aldebiko edo alde anitzeko akordioen kopurua (I+b-rako EEPren partenariatu kofinantzatutako eta Europako beste ekimen publiko batzuk).
12. Ikerbasqueko ikertzaileen kopurua.	Ikerbasqueko ikertzaileen kopurua.
13. ZTBESko eragileen eta euskal enpresen arteko lankidetzeta-proiektuak, ehunekotan.	ZTBESk parte hartzen duen RIA eta IA proiektu guztietatik, zenbat burutu diren ZTBESko eragileak eta euskal enpresak lankidetzan arituta, ehunekotan.
14. I+G+b arloan erreferentziakoak diren Europako eskualdeekiko eta herrialdeekiko lankidetzan arituta burutu diren I+G+b arloko proiektuen artean zenbatek duten zerikusia ZTBPreh lehentasunezko eremuekin, ehunekotan.	I+b-rako EEPren bidez finantzatutako proiektu guztietatik, ehuneko zenbatek betetzen duten, aldi berean, I+G+b-an erreferentziakoak diren Europako eskualdeekiko edo herrialdeekiko lankidetzan arituta burututakoak izatea eta ZTBPreh lehentasunezko eremuekin zerikusia izatea (I+b-rako EEPren barruko RIA eta IA delako nazioarteko lankidetzeta-proiektuak soilik).
15. Nazioarteko lankidetzan arituta sortutako argitalpen zientifikoaren kopurua, milioi biztanleko.	Nazioarteko lankidetzan arituta sortutako argitalpen zientifikoaren kopurua, milioi biztanleko.
16. ZTBPreh lehentasunezko eremuei lotuta dauden eta, horrez gain, Europako programetan jarraipena duten I+G+b arloko proiektuen kopurua, ehunekotan.	I+b-rako EEPren bidez finantzatutako proiektu guztietatik, ehuneko zenbatek betetzen duten, aldi berean, I+b-rako EEPn jarraitutasuna duten eskualde-programen bidez finantzatuak izatea eta ZTBPreh lehentasunezko eremuekin zerikusia duten I+G+b arloko proiektuak izatea.

## 4. Hasierako neurriak

### Berriak

#### Finantza-neurriak

- Finantza-laguntza, I+G+b arloan barne-jarduera duten euskal ETEek aurkeztu beharreko Europako proposamenak prestatzeko (aholkularitza-zerbitzua, enpresarentzako ikaskuntza).
- Finantza-laguntza, euskal eragileek koordinatutako proposamenak edo lan teknikoen pakete baten lider euskal eragile bat duten proposamenak egiteko.
- Finantza-laguntza, I+G+b arloan barne-jarduera duten euskal ETEek I+G+b arloko Europako proiektuen kudeaketari buruzko prestakuntza jaso dezaten.
- Finantzaketa gehigarria, Esparru Programaren bidez finantzatutako nazioarteko lankidetzako proiektuetarako, zeinetan eragile teknologikoak eta enpresa-arloko eragileak lankidetzan arituko baitira.
- Finantza-laguntza, ETEek partenariatuetan parte har dezaten errazteko.
- I+G+b arloan diharduten euskal ETEentzako finantza-laguntza, nazioarteko networking-ean aritzeko, nazioarteko bazkideekiko bilerak egiteko eta ekitaldietan parte hartzeko.
- EAEko laguntza-neurrien artean, Europako programetako ekimen arrakastatsuetan finantza-osagarria txertatzeko formulak aztertzea (EAEko programei akreditazioa ematea, EICen plugin-a edo Bikaintasun Zigilua delakoak eskura ditzaten errazteko).
- IKUR estrategiaren bidezko finantzaketa, ikerketa-eremu esanguratsuak bultzatzeko.

### Gaur egun badaudenak

- Partenariatu kofinantziatuen bidez, EAEko programak beste programa batzuekin koordinatzea, azken horiek nazionalak zein eskualdekoak izan.
- Ikerbasque. Talentu zientifikoa erakartzeko eta kontsolidatzeko programak, Euskadiko ikerketa sustatzeko.

#### Zerbitzuak


- Proposamenak aurrez ebaluatzeko zerbitzua, nazioarteko ebaluatzaileen aditu talde eta guzti.
- Eskualdeko bilerak antolatzea, eragileen arteko lankidetzak sustatzeko eta lankidetzarako esparru-akordioak sortzeko. Eskaintza eta eskaria uztartzeko bilera. (BRTA klusterrarekiko lankidetzak)
- Prospektiba-ekintzak (gidaritza-taldee, trantsizioei eta abarri lotutakoak).
- Nazioarteko lantaldeak, besteak beste fabrikazio aurreratuari buruzko nazioarteko lantaldea, RIS3 Euskadiko gainerako lehentasunetara zabaltzea.
- Eragileak *advisory groups* eta *evaluation panels* delakoetara eta abarrera joan daitezen sustatzea.
- RIS3 lehentasunetan lider diren herrialdeak edo eskualdeak identifikatzea.
- Erakunde eta entitate publikoek dagoeneko dituzten harreman formalen eta informalen mapaketa, herri gisa dugun potentzial koordinatua zer-nolako den baloratzeko.
- Ikerketa-azpiegiturak nazioartera irits daitezen erraztea. (BDIH Konexio programaren lehenengo edizioa)
- Klusterren bidez enpresa-sareko I+G+b nazioartekotzearen inguruan sentsibilizatzeko lana.
- Behatokia egokitzea, I+G+b nazioartekotzeko estrategia berriari erantzuteko.
- Europako proiektuetan parte hartzen laguntzea, I+b-rako EEPz harago. (LIFE, Digital Europe)

- Proposamenak idazten tratatzeko prestakuntza-eskaintza. (EEN)
- Esparru Programan parte hartzeko potentziala duten beste enpresa batzuk aurkitzea. (EEN)
- RIS3 Euskadiri eta enpresen parte-hartzeari buruzko informazioa emateko jardunaldiak. (EEN) (adibidez, kateko finantzaketa eskuratzeko deialdiak)
- Aholkularitza proaktiboa. (EEN)
- ETEetarako berariazko prestakuntza-eskaintza. (EEN)
- Bazkideak bilatzeko ekintza proaktiboa. (EEN)
- RIS3 lehentasunei lotutako *brokerage events* delakoak antolatzea. (EEN)
- Elkartzeko akordioetan laguntzea (*Partnership agreements*). (EEN)
- Ezagutza-sareetako parte-hartzea koordinatzeko tresna. (BRTA)
- Euskadiren eta beste eskualde edo herrialde batzuen arteko aldebiko akordioak ZTBPreh lehentasunezko eremuetan.
- RIS3 Euskadirekin lotutako interes-sareak aztertzea eta identifikatzea.
- Harremanetarako Puntu Nazionaletara irispidea izateko ekintza proaktiboa. (RCP)




## 5. Monitorizazioa eta ebaluazioa

Euskal I+G+b-k Europan duen estrategia monitorizatzeko eta ebaluatzeko orduan, bi maila daude.




## 5. Monitorizazioa eta ebaluazioa



### Estrategiaren inplementazioaren jarraipena eta ebaluazioa

1. Jarraipen Plana: egin beharreko zereginak, eragile arduradunak eta neurtzeko prozedurak.
2. Txosten bat, zeinak honako hauek jasoko baititu: aginte-koadroaren bilakaera, neurrien inplementazio-maila eta neurri horiek helburuak betetzeari dagokionez egindako ekarpena.
3. Hurrengo urtean ezarri beharreko hobetzeko gomendioak eta neurri berriak proposatzea, estrategia eraginkortasunez abiarazteko.

## 5. Monitorizazioa eta ebaluazioa



### Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Sistema nazioartekotzea


1. Prospektiba-txostena: hasierako hipotesien eta estrategiari eragiten dioten joeren jarraipena.
2. Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren nazioartekotzearen bilakaeraren jarraipena. Diagnostiko honetan, badira beste adierazle batzuk; horien jarraipena ez da jaso aginte-koadroan baina haien jarraipenak Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren nazioartekotzearen ikuspegi osoagoa ematen du. Besteak beste, RIS3 lehentasunekin, misioekin eta abarrekin zerikusia dute adierazle horiek.
3. Estrategian bertan, ildo estrategikoei, helburuei eta erronkei dagokienez, aldaketak egiteko proposamena.

2024<sup>(\*)</sup>

2027<sup>(\*)</sup>

2031

Jarraipen-planaren edukia.



1. Hartu beharreko neurriak zehaztea.
2. Eragile arduradunak.
3. Neurketa-prozesua.
4. Bi urtean behingo jarraipena, neurrien inplementazio-maila eta neurri horiek helburuak betetzeari dagokionez egindako ekarpena aztertzeko.

**Hobetzeko gomendioak proposatzea**

## 5. Monitorizazioa eta ebaluazioa

Baliabide teknikoak abian jartzea eta estrategiaren inplementazioan parte hartzea: Taldeak

Taldea	Kideak
Estrategiaren talde eragilea	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila, SPRI, Innobasque, Hezkuntza Saila, Osasun Saila eta Lehendakaritza.
Aditu-taldea	Hizpide dugun arloko 11 adituk osatzen dute. Hona hemen adituok: Arturo Antón (SPRI), Camino Correia (Zabala), Carlos Peña (Lehendakaritza), Iñigo Atxutegi (Ikerbasque), Javier Garcinuño (Bilbao Ekintza), Jose Ignacio Hormaeche (Energia Klusterra), Ignacio Quintana (IHOBE), Igor Campillo (Euskampus), Jon Ander Egaña (Elikadura Klusterra), Lorea Mendoza (BIOEF) eta Rikardo Bueno (BRTA).
RIS3ren gidaritza-taldeak nazioarteko taldeak	Europako ekimenetako gobernu-organoetan diharduten Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sistemako eragileek osatzen dituzte, eta helburu hauek dituzte: sistema gisa nazioartean dugun posizionamendua hobetzea, ezagutza aprobetxatzea etorkizuneko ekintzak bideratzeko eta European eragitea Euskadiren interesak defendatzeko.

Oharra: Aditu-taldea eta nazioarteko taldeak kontraste-taldeak izango dira estrategia monitorizatzeko eta ebaluatzeko orduan.

## 5. Monitorizazioa eta ebaluazioa

Baliabide teknikoak abian jartzea eta estrategiaren inplementazioan parte hartzea: Rolak eta erantzukizunak

	EJ	SPRI	INNOBASQUE
Jarraipen-plana prestatzea	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (EGJIS)	SPRI	INNOBASQUE*
Jarraipen-txostena (aginte-koadroa + neurrien jarraipena)	EGJIS	-	INNOBASQUE*
Gomendioak eta neurri berriak proposatzea	EGJIS Hezkuntza Saila Osasun Saila Lehendakaritza	SPRI	INNOBASQUE*
Prospektiba-txostena	-	-	INNOBASQUE
Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren nazioartekotzearen bilakaera	EGJIS Hezkuntza Saila Osasun Saila Lehendakaritza	SPRI	INNOBASQUE*

(\*)INNOBASQUE: Estrategiaren koordinaziorako eta jarraipenerako laguntza teknikoa.

## Aurkibidea

1. Espezializazioa eta bikaintasuna	24. or.
2. Talentua	33. or.
3. Harremanak	35. or.
4. Finantzaketa	40. or.
5. Finantzaketa / Parte-hartzea	42. or.

**European Research Council programaren bidez oinarritzko ikerketa garatzeko Euskadik lortu duen finantzaketa % 92 handitu da VII. Esparru Programaren bidez lortutakoarekin alderatuta.**

EAEko eragileek ERC programaren bidez lortutako finantzaketa Horizonte 2020ren barruan ERC programaren bidez emandako finantzaketa osoaren % 0,4 da (\*). Horrek esan nahi du % 0,14 puntuko hazkundera izan dela VII. Esparru Programaren aldean. Laguntzen batez besteko balioa 1,2 eta 1,8 milioi euro bitartekoa da.


Beren arloan lider diren ikertzaileek zuzendutako arrisku handiko proiektu aitzindarietarako laguntza gehienak (Advanced Grants) RIS3 Euskadiren lehentasunezko zenbait eremutan aplikatu daitezkeen garapenak dira (\*\*).

Gainerako laguntzen bidez finantzatutako proiektu gehien dituen arloa, berriz, osasuna da.

(\*) Iturria: Horizon 2020 dashboard. Oharra: H2020ren barruan, 10.558 milioi euro eman dira ERC programaren bidez. Espainia seigarren postuan dago (% 5), eta haren aurretik daude Erresuma Batua (% 19), Alemania (% 17), Frantzia (% 12), Herbehereak (% 9) eta Suitza (% 7). Euskadi, berriz, finantzaketa handiena eskuratu duten autonomia-erkidegoen artean hirugarrena da (% 0,4), eta haren aurretik daude Katalunia (% 2,3) eta Madril (% 1,7).

(\*\*) Esate baterako, kognizioa, burmuina eta hizkuntza, quantum teknologia eta garapen matematikoak edo fisiko-matematikoak.

### 1. irudia. Eragile zientifiko-teknologikoek lortutako ERC programa motak eta kopurua, RIS3 Euskadiko espezializazioen arabera.




Iturria: Behatokia (Innobasque)



Eragile zientifikoek ahaleginari esker handitu da, nagusiki, programa honen finantzaketa.

### 2. irudia. Eragile zientifiko-teknologikoek lortutako ERC programa motak eta kopurua.



Euskadin garatutako ERC laguntzen % 88ren ikertzaile nagusia Ikerbasqueko ikertzaile bat da.

Iturriak: Behatokia (Innobasque) eta Ikerbasque


**OHARRA:** Nabarmentzekoa da eragile zientifikoek Synergy Grant delako bat lortu dutela, zeinak 9,4 milioi euroko aurrekontua baitu. Nolanahi ere, diagnostiko honetan ez da informazio hori jaso, 2020ko deialdi bati dagokio-eta.

### *Euskadik eutsi egin dio Funtsezko Teknologia Erraztaileetan parte hartzearen aldeko apustuari.*

Funtsezko teknologia erraztaileak garatzea helburu duten proiektuetan, % 5 hazi da Euskadiren parte-hartzea.

Fabrikazioa eta prozesu aurreratuak, nanoteknologiak eta material aurreratuak; arlo teknologiko horietan espezializatu behar du Euskadik H2020n programaren barruan, finantzaketa publikoaren kontzentrazioari erreparatuta eta EB-28ko gainerako eskualdeekin alderatuta.

### *3. irudia. Euskadiren espezializazio teknologikoaren maila, proiektuetan parte hartzeko emandako H2020 finantzaketari erreparatuta eta EB-28ko gainerako eskualdeekin alderatuta.*




*Iturria: R&I Regional Viewer*

## 1. Espezializazioa eta bikaintasuna

Mota horretako proiektuetan lortutako finantzaketaren % 62 RIS3 Euskadiren lehentasunetako bat, fabrikazio aurreratua, betetzea helburu duten funtsezko teknologia erraztaileak garatzeko erabili da.

**4. irudia. Nanoteknologiaren, material aurreratuaren, bioteknologiaren eta fabrikazio eta eraldaketa aurreratuaren arloko, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien arloko eta espazioaren arloko deialdietan lortutako finantzaketaren banaketa (milioi eurotan), RIS3 Euskadiren lehentasunen arabera.**



Iturria: Behatokia (Innobasque)


(\*) Askotariko lehentasunak: lehentasun bati baino gehiagori aplikatu dakizkiekeen emaitzak dituzten proiektuak, batik bat IKTen arlokoak.

*Batetik, garraioaren, energiaren eta klima aldaketaren, eta bestetik, ingurumenaren erronka sozialetan espezializatu da Euskadi, H2020ren III. oinarriaren barruan.*

Garraioaren erronkaren barruan, sektore aeronautikoak eskuratu du finantzaketa handiena.

Energiaren erronkan, energia-biltegiatzea, energia eolikoa eta smartgrid-ak delako ikerketa-arloek eskuratu dituzte finantzaketa handienak.

**5. irudia. Euskadiren espezializazio-maila, III. oinarriaren barruko proiektuei emandako H2020 finantzaketari erreparatuta eta EB-28ko gainerako eskualdeekin alderatuta.**




*Iturria: R & i Regional Viewer*

***Euskadiren arrakasta-tasa\* (% 18) H2020 programako batez bestekoa (% 12) baino handiagoa da oraindik ere.***

Lehiak gora egiteaz batera, behera egin du H2020ren batez besteko arrakasta-tasak. Hala ere, Europako batez bestekotik (EB-28) are gehiago bereiztea lortu du Euskadik.

**6. irudia. Arrakasta-tasaren (\*) bilakaera I+G+b arloko Europako azken bi esparru-programetan.**




*Iturriak: Behatokia (Innobasque) eta Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroa*

*(\*) Honela kalkulatzen da arrakasta-tasa: H2020ren barruan finantzatutako proiektu guztietatik, euskal parte-hartzea duten proiektuen kopurua zati H2020ra aurkeztu diren proiektu guztietatik, euskal parte-hartzea duten proiektuen kopurua.*

**Sistemako eragile-talde guztiek lortu dituzte Europako batez bestekotik gorako arrakasta-tasak.**

Nabarmentzekoa da eragile teknologikoen eta enpresa-arloko eragileen lana, arrakasta-tasa handiei eustea lortu baitute, parte-hartze maila handia izanik.

**7. irudia. Arrakasta-tasa (\*) eragile motaren arabera.**




Iturria: Behatokia (Innobasque)

(\*) Honela kalkulatzen da eragile bakoitzaren arrakasta-tasa: H2020ren barruan finantzatutako proiektu guztietatik, kasuan kasuko eragileak parte hartu duen proiektuen kopurua zati H2020ra aurkeztu diren proiektu guztietatik, kasuan kasuko eragileak parte hartu duen proiektuen kopurua.


### **Nazioarteko lankidetzaproiektuen % 23ren lider da Euskadi.**

Eragile teknologikoek zuzendu dituzte proiektu gehien (% 78).

**8. irudia. Nazioarteko lankidetzaproiektu guztietatik (\*), zenbat zuzendu dituen euskal eragile batek.**



**9. irudia. Nazioarteko lankidetzaproiektuen lider izateko gaitasuna duten eragileen banaketa.**




Iturria: Behatokia (Innobasque)

(\* ) Nazioarteko lankidetzaproiektuak: H2020ren barruan, ikerketa- eta berrikuntza-ekintzak (RIA) eta berrikuntza-ekintzak (IA).

RIS3 Euskadiren lehentasunen artean, fabrikazio aurreratuak eskuratu du finantzaketa handiena euskal eragileek zuzendutako nazioarteko lankidetzeta-proiektuetarako.

**10. irudia. Euskal eragileek zuzendutako nazioarteko lankidetzeta-proiektuetarako lortutako finantzaketaren banaketa (milioi eurotan), RIS3 Euskadiren arabera.**



Iturria: Behatokia (Innobasque)




### VII. Esparru Planarekin alderatuta, Euskadik eutsi egin dio ikertzaileen mugikortasunerako eta prestakuntzarako Europako laguntzen bidez eskuratutako finantzaketari (Marie Skłodowska-Curie Actions).

Programa honen bidez euskal eragileei emandako finantzaketa Horizonte 2020 programaren barruan mota horretako ekintzei emandako finantzaketa osoaren % 1 da (\*).

Osasuna (% 36) eta fabrikazio aurreratua (% 17) dira programa honen barruan finantzaketa handiena eskuratu duten RIS3 lehentasunak.

**11. irudia. Euskadik, RIS3ren arabera, Marie Skłodowska-Curie Actions (MSCA) delako ekintzen bidez eskuratutako finantzaketaren banaketa, milioi eurotan.**




Iturria: Behatokia (Innobasque)

(\* ) Iturria: Horizon 2020 dashboard. Oharra: Gaur egun, H2020n, 5.424 milioi euro eman dira MSCA delakoen bidez (IF, ITN eta RISE ekintzak barne). Espainia bosgarren postuan dago (% 8), eta haren aurretik daude Erresuma Batua (% 19), Alemania (% 12), Frantzia (% 9) eta Herbehereak (% 8). Euskadi, berriz, finantzaketa handiena eskuratu duten autonomia-erkidegoen artean hirugarrena da, eta haren aurretik daude Katalunia (% 3) eta Madril (% 2).

## 2. Talentua

Kategoria guztietako eragileek jaso dituzte laguntzak programa honen bidez, osasun-arlokoek izan ezik. Nabarmentzekoa da eragile zientifikoek mota horretako ekintzetan, eta, bereziki, ikertzaileen mugikortasunerako ekintzetan (Individual Fellowship), egin duten ahalegina.




Iturria: Behatokia (Innobasque)

Oharra: Ikerketa-arlo guztietatik, osasunaren lehentasuna nabarmentzen da, eta eragile zientifikoak, teknologikoak eta enpresa-arlokoak dira arlo horretako laguntzen onuradun.

**Nazioarteko lankidetzan arituta sortutako euskal argitalpen zientifikoaren kopurua % 16,7 hazi da.**


Euskal argitalpen zientifiko guztietatik, nazioarteko lankidetzan arituta sortutakoaren ehunekoa handitu egin da azken urteotan, eta, 2019an, % 54ra iritsi da.

**13. irudia. Euskal argitalpen zientifiko guztietatik, nazioarteko lankidetzan arituta sortutakoaren kopuruan izandako bilakaera, ehunekotan.**



*Euskal eragileak, nagusiki, Alemania, Italia, Frantzia, Erresuma Batua eta Belgikarekin aritu dira lankidetzan H2020 programaren barruan.*

**14. irudia. Euskadi, nagusiki, herrialde hauekin aritu da lankidetzan H2020ren barruan:**




*Iturria: Behatokia (Innobasque)*

***Euskadik bere eragile zientifiko-teknologikoek Europako parteneriatu publiko-pribatuetan duten posizionamendua baliatzen du.***


H2020ko parteneriatu publiko-pribatuen % 78k gutxienez (PPP eta JTI delakoak) euskal eragile zientifiko-teknologiko bat dute beren gobernu-organotan.

II. eta III. oinarriari buruzko deialdietan Europako Batzordeak egiten duen ekarpenaren % 63 deialdi arruntetatik dator, eta gainerako % 37a, berriz, parteneriatuen bidez egindako deialdietatik.

**15. irudia. Gobernu-organotan euskal eragileak dituzten H2020ko parteneriatu publiko-pribatuen kopurua (PPP eta JTI motetakoak), eragileka.**




**16. irudia. Ohiko deialdietan eta parteneriatuetan eskuratutako finantzaketa, ehunekotan**




Iturria: Behatokia (Innobasque)

**Fabrikazio aurreratuaren arloan eskualde lider gisa posizionatzea lortu du Euskadik.**


ZTBESko eragileek Europako zenbait ekimenetan parte hartuta, fabrikazio aurreratuaren arloan Europako eskualde lider gisa posizionatzea lortu du Euskadik.



**Eragile teknologikoen ordezkari H2020ko parteneriatu publiko-pribatueta (\*)**



**Enpresa-arloko eragileen ordezkari H2020ko parteneriatu publiko-pribatueta (\*)**




**Eragile zientifikoen ordezkari H2020ko parteneriatu publiko-pribatueta (\*)**

(\*) Kolore urdinak adierazten du entitatere bat dagoela parteneriatu publiko-pribatueta.

**H2020 programaren bidez finantzatutako proiektuen % 26an, ZTBESko eragileak elkarren arteko lankidetzan aritu dira.**


Lankidetzaren proiektuen % 68an, ZTBESko eragileak eta enpresak aritu dira elkarren arteko lankidetzan.

**17. irudia. Euskadik parte hartzen duen proiektu guztietatik, zenbatetan aritzen diren lankidetzan euskal entitate bat baino gehiago.**



Iturria: Behatokia (Innobasque)

**18. irudia. ZTBES-ZTBES lankidetzaren proiektuen kopurua, eta ZTBES-enpresa<sup>(\*\*)</sup> lankidetzaren proiektuen kopurua**



Iturria: Behatokia (Innobasque)


(\*) Mota hauetako proiektuak hartzen dira kontuan: RIA, IA, CSA, ERA-NET, Fast Track to Innovation, MSCA ERC, PCP.

(\*\*) 18. irudiko datuen baturak gainditu egiten du euskal entitateak lankidetzan arituta burututako proiektuen kopurua; izan ere, ZTBES-enpresa gisa sailkatutako proiektu batzuk ZTBES-ZTBES lankidetzaren artean ere kontabilizatzen dira, partzuergoan ZTBESko entitate batek baino gehiagok parte hartzen du-eta.

**Euskadik Horizonte 2020 programaren bidez lortutako finantzaketa % 52 handitu da VII. Esparru Programaren bidez lortutakoarekin alderatuta.**

Programa amaitzen denerako, Euskadik gainditua izango luke ezarritako helburua, hau da, 805 milioi euroko finantzaketa.

**19. irudia. Euskadik Europako I+G+b arloko esparru-programetan eskuratu duen Europako Batzordearen finantzaketaren bilakaera (milioi eurotan).**



(\*) 690 da 2014-2019 aldirako helburua; 2014-2020 aldirako finkatutako helburuak sei urteetan linealki banatuta kalkulatu da kopuru hori.

Iturria: Behatokia (Innobasque)




***Biztanle bakoitzeko H2020ren funtsa gehien erakartzen dituzten Europako eskualdeen artean, hamaseigarren postuan dago Euskadi.***

Euskadik H2020 programaren bidez eskuratutako finantzaketak gora egin du VII. Esparru Programaren bidez lortutakoarekin alderatuta; hain zuzen ere, H2020 programaren aurrekontu osoaren % 1,3 eskuratu du.

H2020ren bidez biztanle bakoitzeko atzemandako funtsen batez bestekoa aintzat hartuta, Europako 322 eskualdeetatik (\*) hamaseigarren postuan dago Euskadi, eta haren aurretik daude Erresuma Batua, Belgika, Norvegia, Danimarka, Finlandia, Herbehereak, Austria, Suitza eta Islandia.

(\*) Iturria: R&I Regional Viewer.

***20. irudia. Europako esparru-programa bakoitzaren aurrekontua kontuan izanda, Euskadik programa bakoitzean eskuratu duen finantzaketaren bilakaera, ehunekotan.***




Iturriak: Funding & Tenders portal (Europako Batzordea) eta Koaderno Estrategikoa 2014-2020 (Innobasque).

**H2020n parte hartzen dutelako nabarmentzen dira, oraindik ere, zentro teknologikoak. Nolanahi ere, VII. Esparru Programarekin alderatuta, enpresa-arloko eragileengan izan da hazkunderik handiena finantzaketari dagokionez.**

Eragile teknologikoak, eta bereziki zentro teknologikoak dira, oraindik ere, esparru-programen bidez finantzaketa handiena eskuratu duten eragileak (287 milioi euro).

VII. Esparru Programarekin alderatuta izan den bilakaera aztertuz gero, sistemako eragile guztiek lortu dute finantzaketa handiagoa. Nabarmentzekoa da enpresa-arloko eragileek lortutako finantzaketan izandako hazkundera, aurreko programaren bidez eskuratutakoa halako bi da-eta. Halaber, osasun-arloko eragileek egindako ahalegina ere aipatzekoa da; izan ere, arlo horretan lortutako balioak VII. Esparru Programan eskuratutakoak halako hiru dira.

**21. irudia. Europako Batzordeak egindako ekarpenetatik Euskadik lortu duen finantzaketaren banaketa, VII. Esparru Programa eta H2020 alde ratuta.**




Iturria: Behatokia (Innobasque)

Honezkerok, programaren hasieran ezarritako finantzaketa-helburuak lortu dituzte enpresa-arloko eta osasun-arloko eragileek.

Urtebete falta da H2020 amaitzeko, eta eragile zientifiko-teknologikoek oraindik ez dute bete ezarritako helburua. Hala ere, hasieran zeukaten Europako finantzaketa-bolumena handitzea lortu dute.

**22. irudia. 2014-2019 aldian metatutako finantzaketaren emaitzak (milioi eurotan), H2020rako ezarritako helburuekin alderatuta.**



### ***Berrikuntza-ekintza berriei esker, euskal enpresa gehiagok parte hartu ahal izan dute H2020n.***

Euskal enpresek lortutako finantzaketaren % 64 berrikuntza-ekintzen bidez (IA) lortu da, eta % 33, berriz, ikerketa- eta berrikuntza-ekintzen bidez.

H2020n parte hartu duten euskal ETEen % 33k ETE berritzaileen aintzatespena jaso dute; izan ere, garapen-, hazkuntza- eta nazioartekotze-anbizio handia agertu dute, ETE tresnan parte hartuz. Proiektu horiek fabrikazio aurreratuaren (% 31), osasunaren (% 27) eta energiaren (% 18) lehentasunak betetzea dute helburu nagusi.

**23. irudia. Euskal enpresa handiek eta ETEek ikerketa- eta berrikuntza-ekintzetan (RIA) eta berrikuntza-ekintzetan (IA)\* lortutako finantzaketa, ehunekotan.**



Iturria: Behatokia (Innobasque)

*Ikerketa- eta berrikuntza-ekintzak (RIA): Argi eta garbi definitutako erronkei ekiten dieten ikerketa-proiektuak finantzatzen dira; proiektu horiek ezagutza edo teknologia berriak sortzea ekar dezakete.*

*Berrikuntza-ekintzak (IA): prototipoak, probak, demostrazioak, esperimentu pilotuak eta zabaltze-azterlanak egitea helburu duten proiektuak dira, eta produktuak edo zerbitzuak sortzea edo hobetzea dute helburu. Berrikuntza-ekintzak kalkulatzeko, IA, Fast Track to Innovation eta ETE tresna delakoei lortutako deialdien emaitzak kontuan hartu dira. (\*) Espainia da ETE tresnaren bidez finantzaketarik handiena lortu duen herrialdea (% 14). Euskadi laugarren postuan dago (% 1,3), eta haren aurretik daude Katalunia (% 3,9), Madril (% 3,3) eta Valentzia (% 1,5).*

*I+G+b sustatzeko Europako esparru-programan parte hartzen duten enpresa berrien kopuruak gora egin du; hala ere, euskal enpresen parte-hartzea txikia da I+G+b arloan barne-jarduera duten euskal enpresen kopuruarekin alderatuta.*

VII. Esparru Programarekin alderatuta, ETEen kopurua % 42 hazi da. I+G arloan barne-jarduera duten ETEen % 24 dira, beraz.

*24. taula. I+G arloan barne-jarduera duten Euskadiko enpresen sailkapena (2018) eta H2020n parte hartzen ari diren enpresen sailkapena, langile kopuruaren arabera (Iturriak: Eustat eta Innobasque).*

<b>Enpresaren tamaina</b>	<b>I+G arloan barne-jarduera duten enpresa-establezimenduak, guztira (2018)</b>	<b>I+G arloan barne-jarduera duten enpresak, guztira (2018)(*)</b>	<b>H2020n parte hartzen ari diren enpresak, guztira</b>	<b>%</b>
ETEak (0-249 langile)	1209	883	212	% 24
Enpresa handiak (250)	67	57	55	% 96


*(\*) Honako hurbilketa honen arabera egin da kalkulua: 2018an, Euskadin, 10-249 langileko 7.814 enpresa zeuden, eta horiek, guztira, 10.812 establezimendu hartzen zituzten barne; horrez gain, 249 langiletik gorako 203 enpresa zeuden, eta horiek, guztira, 239 establezimendu hartzen zituzten barne (kalkulu hori egiteko, alde batera utzi dira handizkako eta txikizkako merkataritza-jarduerak, finantza- eta aseguru-jarduerak eta higiezin-jarduerak).*

**ZTBESko eragileek zenbait aukera antzeman dituzte, I+G+b arloko Europako Esparru Programatik harago.**

H2020 da aurrekontu handieneko programa. Hala ere, Europako I+G+b Proiektuetan Euskal Parte Hartzea Aztertzeko Behatokiak I+G+b arloari laguntzeko beste programa batzuetan (hala nola LIFE, INTERREG eta Research Fund for Coal and Steel) euskal eragileek eskuratutako finantzaketari buruzko informazioa jaso du.

Halaber, nabarmendu beharrekoak dira osasun-eragileek DG SANTEren osasun-programaren deialdiekiko agertu duten interesa eta deialdi horietan izandako arrakasta-tasa (% 74).

**25. irudia. Behatokian erregistratutako finantzaketa, I+G+b-ri laguntze Europako beste programa batzuen<sup>(\*)</sup>.**



<sup>(\*)</sup> Euskal eragileek igotako datuetan oinarritutako informazio kontrastatu gabea. Beste programa batzuek honako hauek biltzen dituzte: EUROPEAN FOOD SAFETY AUTHORITY, COSME (2014-2020)


DG DEVCO. International Cooperation and Development, AAL - ACTIVE AND ASSISTED LIVING PROGRAMME, PUBLIC-PUBLIC PARTNERSHIPS (2014-2020), EUROPEAN ENVIRONMENT AGENCY (EEA), EUROPEAN SPACE AGENCY (ESA), DG ECHO. HUMANITARIAN AID AND CIVIL PROTECTION (2014-2020)

**ERA-NET ekimenean bidez egindako deialdietan parte hartu duten euskal enpresen kopuruak behera egin du.**

Emaitzek azken urteetan izan duten bilakaerak agerian uzten du parte-hartzeak behera egin duela, baina azkenean finantzatu diren enpresek arrakasta handiagoa izan dutela.


Gaur gaurkoz, nazioarteko lankidetzan arituta burututako I+G arloko proiektuak babesteko eskualde-finantzaketa HAZITEK programaren finantzaketa osoaren % 1 baino gutxiago da.

**26. irudia. Euskal enpresek ERA-NET deialdietan izandako parte-hartzearen bilakaera (2014-2019).**



Iturria: Innobasquek

**27. irudia. GAITEK (2014 eta 2015) eta HAZITEK (2016-2019) programen guztizko finantzaketaren bilakaera (milioi eurotan) eta ERA-NET deialdien bidez (2014-2019) onetsitako nazioarteko lankidetzaproiektuetara bideratutako ehunekoa.**



Iturriak: Teknologia Zuzendaritza-Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (EJ) eta SPRI.

## II. eranskina. Glosarioa

- **Advisory Groups (Europako Batzordearen aholku-taldeak):** politikak formulatzeko zikloaren lehen etapetan interesdunei modu ireki eta gardenean kontsultatzeko EBk duen konpromisoa indartzeko sortu diren taldeak.
- **Batera programatutako parteneriatuak:** Batzordea eta bazkide publiko edo pribatuak biltzen dituzten elkarteak. Akordio-memorandumetan edo kontratu-akordioetan oinarritzen dira.
- **BDIH konexio:** Euskal industriarentzako laguntzak, teknologia digitalekin esperimenta dezan Basque Digital Innovation Hub-ean (BDIH) eta Europako beste Digital Innovation Hub batzuetan (DIH).
- **Berrikuntza-ekintzak (Innovation Actions, IA):** planak edo sistemak egitea edo produktu, prozesu edo zerbitzu berri, aldatu edo hobetuak diseinatzea helburu duten jarduerak. Horien barruan sar daitezke, besteak beste, prototipoak garatzea, saiakuntzak egitea, demostrazioak egitea, ariketa pilotuak egitea, produktuak eskala handian balidatzea eta produktuok merkatuan erreplikatzeko.
- **Beste eragile batzuk:** Entitate publikoak eta bestelakoak.
- **Bikaintasun-zigilua:** kalitate-ziurtagiri bat da, eta frogatzen du deialdi batera aurkeztutako proposamen batek, lan-programan finkatutako ebaluazio-atalase guztiak gainditu baditu ere, ezin izan duela finantzaketarik eskuratu, lan-programan proposamen-deialdi jakin horretarako aurrekonturik eskuragarri ez dagoelako; hori dela eta, Europar Batasuneko edo estatuko beste finantzaketa-iturri batzuen laguntza jaso dezake.
- **BRTA:** 2019an sortutako aliantza, teknologiako eta ikerketa kooperatiboko 16 zentrok osatua, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarekoek, Eusko Jaurlaritzakoek, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundietakoek eta SPRI taldekoek. Lankidetzaren dinamika bermatzea du helburu, Euskadiren erronka teknologikoei eta industrialei aurre egiteko eta nazioartean duen posizionamendua hobetzeko.
- **Connecting Europe Facility (CEF):** Europar Batasunaren finantza-tresna, hazkundera, enplegua eta lehiakortasuna sustatzeko, Europako azpiegituretan inbertituz.
- **Digital Europe:** EBren finantza-tresna, industriaren eraldaketa digitala bultzatzeko eta berrikuntza, ikerketa eta garapen teknologikoko politiken industria-potentziala hobeto aprobetxatzen laguntzeko, Europar Batasun osoko herritarren eta enpresen mesedetan —eskualde ultraperiferikoak eta ekonomikoki behartsuak diren eskualdeak barne—.



## II. eranskina. Glosarioa

- **EIC plug in-a:** Prozesu bat da, zeinaren bidez EBko estatu kide bakoitzeko beste programa nazional zein eskualdeko batzuen bitartez finantzatu diren proiektuei aukera ematen baitzaie Horizonte Europaren EIC delako oinarriaren (Europako Berrikuntza Kontseilua) Azeleratzailea programan sartzeko, zuzenean, ebaluazio-fasetik igaro gabe.
- **Enpresa-arloko eragileak:** ETEak, enpresa handia, enpresetako I+G+b unitateak eta enpresa elkarteak edo klusterrak.
- **Enterprise Europe Network (EEN):** Hazkundera eta enplegua sustatzeko EBk duen estrategian sartzen den funtsezko tresna. Sarea 2008an sortu zuen Europako Batzordeko Enpresa eta Industriako Zuzendaritza Nagusiak. 600 erakunde inguru biltzen ditu, 50 herrialdekoak baino gehiagokoak, eta nazioartekotze- eta berrikuntza-arloko zerbitzuak eskaintzen ditu, batez ere ETEei.
- **ERA-NET:** Ekimen bat, zeinaren helburua baita estatu kideetan eta estatu elkartuetan garatzen diren ikerketa-jardueren eta -politiken koordinazioa eta haien arteko lankidetzaren sustatzea, dagozkien ikerketa-programen bidez (nazionalak zein eskualdekoak), elkarri irekiz eta baterako jarduerak garatuz eta ezarriz.
- **Eragile teknologikoak:** Ikerketa kooperatiboko zentroak (CIC) eta zentro teknologikoak.
- **Eragile zientifikoak:** Unibertsitateak, oinarriko ikerketako eta bikaintasuneko zentroak (BERC) eta Ikerbasque.
- **ERASMUS +:** Europako hezkuntza, prestakuntza, gazteria eta kirola babesteko EBren finantza-tresna.
- **ERC- Advanced Grant:** Ikerketarako Europako Kontseiluaren laguntzak, ikertzaile liderrei zuzenduak, nork bere esparruan jardun dezan.
- **ERC- Consolidated Grant:** Ikerketarako Europako Kontseiluaren laguntzak, ikerlari seniorrei zuzenduak.
- **ERC- Proof of Concept Grant:** Ikerketarako Europako Kontseiluaren laguntzak, egindako ikerketaren merkataritza-proposamen baterako lehen urratsak egitea helburu duten jardueretarako.
- **ERC- Synergy Grant:** Ikerketarako Europako Kontseiluaren laguntzak, edozein gairi buruzko mugako ezagutzak eskuratzeko ikerketa-proiektuak garatzeko, 2-4 ikerlari buru direla, herrialde berekoak edo munduko edozein herrialdetakoak direla ere, betiere EBko estatu kideetako edo herrialde elkartuetako batean edo gehiagotan egiten badute lana.
- **ERC-Starting Grant:** Ikerketarako Europako Kontseiluaren laguntzak, ikerlari gazteei zuzenduak.

## II. eranskina. Glosarioa

- **Europa Digitala:** EBren programa berri bat da, eta eraldaketa digitala sustatuko du bost esparru erabakigarritan: adimen artifiziala, superkonputazioa, zibersegurtasuna, gaitasun digital aurreratuak eta teknologia digitalen erabileraren hedapena ekonomia eta gizarte osora.
- **Europako I+G+b Proiektuetan Euskal Parte Hartzea Aztertze Behatokia:** Innobasquek kudeatutako atari bat da, publikoa zein pribatua, zeinak Europako I+G+b arloko programetan euskal parte-hartzea monitorizatzeko balio baitu.
- **Evaluation panels (ebaluazio-panelak):** Proposamenak ebaluatzeko prozesuan parte hartzeko EBk izendatu dituen pertsonen multzoa.
- **Fabrikazio aurreratuari buruzko nazioarteko lantaldea:** Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren arrakastatsuen adibide bat da, ZTBES nazioartekotzen laguntzeko fabrikazio aurreratuaren lehentasunari dagokionez, RIS3 Euskadi espezializazio-estrategiaren barruan.
- **FET-Flagships:** anbizio handiko ikuspegi oinarrituta dauden epe luzeko eta eskala handiko ikerketa-ekimenak. Zientziaren eta teknologiaren erronka nagusiei ekiten diete; izan ere, espero izatekoa da erronka horiei aurre eginda «jokoa aldatzea», ekonomiari eta gizarteari mesede eginez, eta EBren lidergo teknologikorako eta industrialerako bidea erraztea.
- **Funtsezko Teknologia Erraztaileak:** ezinbesteko elementu teknologikoek eskainitako oinarriko berrikuntza-iturria dira. Elementu horiek aukera ematen dute balio erantsi handiagoko material, produktu, prozesu eta zerbitzu berrien aukera zabala garatzeko.
- **Green Deal:** Hazkunde-estrategia bat da, EB gizarte ekitatibo eta oparo bihurtzeko, baliabideen erabileran eraginkorra, lehiakorra eta modernoa den ekonomiaren bidez. Testuinguru horretan, ez da berotegi-efektuko gasen isuri garbirik egongo 2050ean, eta hazkunde ekonomikoa bereizita egongo da baliabideen erabileratik.
- **H2020ren gizarte-arloko erronkak:** H2020 Esparru Programaren III. oinarria, zeinaren helburua baita egungo gizarte-arazoetarako konponbide berriak eta sinesgarriak garatzea.
- **Harremanetarako Puntu Nazionala (NCP):** Europako ikerketa- eta berrikuntza-proiektuetan parte hartu nahi dutenei (enpresak, unibertsitateak, zentro teknologikoak edo ikerketa-organismo publikoak) aholkularitza eta informazioa emateko ardura duten profesionalak.

- **Health Programe (2014-2020):** Osasun-politiketara bideratutako EBren finantza-tresna, 2014-2020 aldirako.
- **I+b-rako EEP:** Ikerketa eta Berrikuntzarako Europako Esparru Programa.
- **Ikerketa- eta berrikuntza-ekintzak (Research & Innovation Actions, RIA):** ezagutza berriak sortzea edo teknologia, produktu, prozesu, zerbitzu edo soluzio berri edo hobetu baten bideragarritasuna aztertzea helburu duten jarduerak. Horien barruan sar daitezke, besteak beste, oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatua, teknologiaren garapena eta integrazioa, saiakuntzak egitea, demostrazioak egitea eta prototipo bat eskala txikian balidatzea, laborategi batean edo ingurune simulatu batean.
- **Ikerbasque:** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak sustatutako erakundea, zeinaren helburua baita Euskadin zientzia indartzea, bikaintasuneko ikertzaileak laneratzeko eta kontsolidatzeko programak abian jarritz eta Zientziaren Euskal Sistema dinamizatzuz, ikerketa-zentroekin eta unibertsitateekin lankidetzan arituta.
- **IKUR:** Hezkuntza Saileko Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzaren programa bat da, zeinaren helburua baita lankidetzarako gaitasun zientifikoa sustatzea eta Euskadiko zein nazioarteko zenbait eragileren arteko lotura sustatzea ( zientifikoak, teknologikoak, enpresa-arlokoak eta gizarte-arlokoak), oinarrizko ikerketan oinarrituta balio-sorkuntza bizkortzeko.
- **INTERREG 2014-2020:** Europar Batasunaren funtsezko tresna bat da, zeinak proiektuak finantzatzuz mugaz gaindiko lankidetzak babesten baitu. Erronka komunei elkarrekin ekitea eta zenbait arlotan irtenbide komunak aurkitzea du helburu, besteak beste, osasunaren, ingurumenaren, ikerketaren, hezkuntzaren, garraioaren edo energia jasangarriaren arloetan.
- **Invest Europe:** Munduko kapital pribatu handienaren hornitzaileen elkarteak. Arrisku-kapitalean eta azpiegituretan inbertitzen duten Europako enpresak ordezkatzeko dituzten elkarteak, baita inbertitzaileak ere, Europako pentsio- eta aseguru-funts handienetako batzuk barne.
- **Kateko finantzaketa edo hirugarrenentzako finantza-laguntza:** Europako Batzordearen mekanismo bat da, zeinaren bidez funts publiko txikiagoak bizkorrago banatzen baitira, alderdi jakin batzuk babesteko, hala nola teknologia berriak txertatzeko, start up delakoak sustatzeko, sektore aitzindariak sustatzeko eta abar.
- **LIFE + (2014-2020):** Ingurumen-gaietara bideratutako Europar Batasunaren finantza-tresna, 2014-2020 aldirako.

## II. eranskina. Glosarioa

- **Marie Skłodowska-Curie ekintzak (MSCA):** H2020 programaren barruko ekintzak, zeinek Europako kapital intelektualaren garapen optimoa eta erabilera dinamikoa bermatzea baitute helburu, gaitasun berriak eta berrikuntza sortzeko; horrela, Europako kapital intelektualak bere potentziala erabat baliatu ahal izango du, sektore eta eremu guztietan.
- **Maritime affairs programme:** Itsas- eta arrantza-polituketara bideratutako Europar Batasunaren finantza-tresna, 2014-2020 aldirako.
- **Nazioarteko lankidetzaproiektuak:** H2020ren barruan, ikerketa- eta berrikuntza-ekintzak (RIA) eta berrikuntza-ekintzak (IA).
- **Osasun-arloko eragileak:** Osakidetzaren erakunde sanitarioak, osasun-arloko ikerketako zentroak, BIOEF eta osasun-arloko I+G-an diharduten erakundeak.
- **Partenariatu instituzionalizatuak:** ikerketaren eta berrikuntzaren arloko elkarteak, Europar Batasuna, EBko estatu kideak edo industria kide dituztenak.
- **Partenariatu kofinantzatuak:** EBko herrialdeak barne hartzen dituzten elkarteak dira, zeinek partzuergoaren muinean ikerketa-finantzatzaileak eta beste agintaritza publiko batzuk baitituzte.
- **Research Fund for Coal and Steel (RFCS) (2014-2020):** EBren tresna bat da, eta ikatzaren eta altzairuaren arloetako ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak babesten ditu.
- **RIS3 Euskadi:** lurralde-eraldaketa ekonomikorako estrategia bat da, zeinak erabilgarri dauden baliabideak I+G+b arloko lehentasunen multzo mugatu batean biltzen baititu.
- **Sistema:** elkarri eraginez portaera jakin bat eragiteko gai diren elementuen multzoa da. Konplexua ez den sistema bat bere unitateak banan-banan aztertuta uler daiteke. Aitzitik, sistema konplexu baten portaera ulertzeko, ez da nahikoa elementu guztien ekarpenak batzea. Osagai bakoitzak bere portaera du, baina osagai horien ekintzek eragina dute beste osagaietan. Ildo horretan, sistema bat gai da ingurune jakin batera egokitze eta aurreikusten zaila den portaera kolektiboa eragiteko.
- **TRL (Technology Readiness Level):** Eskala bat da, eta teknologia bat zer garapen-mailatan dagoen adierazten du, ideiatik hasi eta produktua merkatuan guztiz zabaldu arte.
- **VII. Esparru Programa:** I+G-ri Laguntzeko Europako Zazpigarren Esparru Programa.

- **ZTBES (Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sarea):** ikerketan, garapenean eta berrikuntzan diharduten entitateen multzo bat da, eta entitate horiek, sarean lan eginez, I+G+b arloko jardueren uztarketa orekatua garatzen dute, ikerketa espezializatu eta bikaina egiten dute, eta horrek eragina du Euskadiko aberastasunean eta ongizatean.

